


URUMEAKO kronika

2018/08/27



PDF

HERNANI Abuztuak 27



[albistea//ASTARBE SAGARDOTEGIA - SAGARARTE GALERIA](#)

«Sagardotegiak beti izan dira kultura espresio desberdinen gune eta bilgune»

Ekainean ireki zuen Astarbe sagardotegia, SagarArte galeria. «Urtero artista gazte pare bat aukeratu eta sustengu

ekonomikoa eman nahi diegu». Jantokian daukate, laster ibiltaria izango den erakusketa.

ASTIGARRAGA

2018/08/25 00:00 Larunbata

Dokumentu zaharrak begiratzeko ibilita konturatu ziren Astarbe sagardotegian, «testuinguru sozioekonomiko zailetan, sagardotegiek kultura babestu» izan dutela, eta orain bi urte SagarArte galeria sortzea erabaki zuten. «Ikusi genuen sagardotegiek bazutela gabezia bat. XIX. mendeari begirata, ikusten genuen sagardotegiak zirela adierazpide kulturalen sustatzaile eta babesle: bertsolariak, pelota... SagarArte da edozein arte adierazpideren bultzatzaile», argitu du Gorka Arizkorreta, Astarbe sagardotegiko turismo eta marketing arduradunak.

«Urtero artista gazte pare bat aukeratu eta sustengu ekonomikoa eman nahi diegu». Momentu honetan, beste artista batzuen obra puntualez gain, Paul Latabururen *Sagarra-Manzana*, 11 pausotako serie ilustratiboa ikusi daiteke, eta irailaren 21etik abendura bitartean Mundakara egingo du salto; Mundaka BC proiektuak plazan duen dendan jarriko da, eta inaugurazio egunean artea, sagardoa eta gastronomia lotuko dituen afaria ere izango da.

Ternuako uretarainoko zubia

Ternuara egindako bidaiarekin hasi ziren, lehendik ere buruan bueltaka zerabilkiten ideari forma ematen. Orduko horrek, Ternuako uretan, Red Bayn hondoratutako San Juan baleontziaren bizkarrezurraren forma hartu zuen, edo balea batena izan zitekeenarena, edo baleontzia horrekin batera urperatuta geratutako sagardo barrika batena. Xebas Larrañagak egin zuen *How deep is the ocean* brontzezko eskultura, Astarbetarrak iaz Ternuara joandako bidaiara eramateko. «Zerbait eraman nahi genuen. Xebasek bi egin zituen, bat han utzi eta bestea hemen gordetzeko, lotura hori sinbolizatzen», azaldu du Joseba Astarbek.

Bidaia baino lehen, urteak zeramatzkien anaiak, Hur Astarbek, Lourdes Odriozola historialariaren laguntzarekin, familiaren iraganeko aztarnei segika, eta horrekin batera, euskal sagardoaren historia azaleratzen. «Dena hasi zen internetekin», dio Josebak. «Interneten informazioa jarri behar zela-eta, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartetik ere hasi ziren galdezka, ea noiztik egiten zen sagardoa Astarben. Anaiak zekien aitak esaten zuena, aitona esaten zuena... Eta horrela, historialari bat, Lourdes Odriozola ezagutzen zutela elkartean, eta hor atera zen 400 urtetik gorako historia».

«Artista gazteekin harremana izan nahi dugu SagarArten, baina hemen lekua izango dute sagarra espresibide duten guztiek»

Kizkia, baleetarako arpoiarekin aldatuta

Historia horren sorrera, orain arte aurkitutako dokumentu zaharrenean oinarrituta, 1563an dago. Horregatik ospatu ditu aurrean Astarbe sagardotegiak 455 urte, ekainean egindako festan, eta hor ireki zuten SagarArte galeria ere.

Urte horietan guztietan, hainbat istorio bizi izan dira sagardotegian, eta horietako batetik etorri zitzaizkien ideia. «Tomas de Tafalla de Mendiola, sagardogile izatetik baleazale izatera pasa zen 1596an. Horregatik joan ginen Ternuara, haren arrastoa segitzera, eta sagardoa berriro ere hara eramatera».

Bidaia horretarako egin zuten Larrañagak aurreneko eskultura, eta dokumentuetan ikasitakoarekin, erabaki zuten arte galeria irekitzea. «Guk ezagututako sagardotegiak ere, beti izan dira kultura espresio desberdinen gune: bertsolariak, trikitilariak, txistulariak... denen bilgune. Gaur egun, jatetxe eta parrandarako gune bihurtzen ari dira, eta saiatu nahi dugu bestelako ekintza sozialak ere bultzatzen. Abestearekin, jantziekin, koadroekin... lan egiten duten artista gazteekin harremana izan nahi dugu, baina hemen lekua izango dute sagarra espresibide duten guztiek».

Kondairetatik, koadroak eta film labur bat

Idea horrekin lanean hasi, eta dokumentu zaharrei heldu zieten berriro.

Historian zehar, eta hainbat kultura eta zibilizaziori lotuta, sagarraren bueltako kondaira asko aurkitu daitezke. Horregatik, ipuin batzuk idatzi, eta horietan oinarrituta zerbait egitea proposatu zioten Paul Lataburu artista

donostiarrari. Honek, 11 pausotako serie ilustratiboa sortu zuen ipuin horietan oinarrituta: gizakia ehiztari-biltzaile izatetik hiritartu eta nekazaritzaz bizitzera pasatzean, sagarrondoak oraindik etxekotu ez zirenekoa, Jainkoen sinbolo zirelako; edo Nilon barrena, egungo sagarrondoan lehen arbasoa izan zen hazia Persiaraino iritsi zenekoa; edo Vikingoek Gaztetasunaren sagarra edo gaztetzen duen edariarekin gozatu zutenekoa...

‘ Astarbe sagardotegiarekin lotuta, orain arte aurkitu den dokumenturik zaharrena, 1563 urtekoa da.

Azken kondaira eta ilustrazioan oinarrituta, beste artista batek, Aitor Zarzuelok, film labur bat ere egin du:*Iddun*. Lehiaketa batzuetan aurkezteko asmoa dauka, eta, beraz, oraindik sorpresa gordetzen ari dira, baina laster izango da ikusteko moduan.

SagarArte, interneten

Latabururen ilustrazioak, eta hauen oinarri diren kondairak webgunean ere ikusi daitezke:

www.astarbe.eus/kondaira. Izan ere, asmoa da SagarArtek interneten edukitzea bere ataria. «Gu artista horien babesle izango gara, eta baita erakusleho ere. Eta sagardo denboraldia aprobeztatuko dugu, artisten izenak bultzatzeko».

Datorren denboraldia iritsi bitartean, Sagarra-Manzana ezagutzeko aukera izango da. Hil hau bukau arte, Astarbeko jantokian izango da ikusgai, eta irailaren 21ean ibilbide berri bati emango dio hasiera: abendura arte, Mundaka BC proiektuak Mundakako plazan daukan dendan ikusi ahal izango da, eta aurrerago, Iruñeko Napardi soziedadean, Donostiako Tabakaleran, Pasaiaiko Alabaola Itsas Kultur Faktorian... Sagarra eta sagardoa, beste ibilaldi bat hastekotan dira. Honek ere 455 urte iraungo ote dituen, ikusteko dago. Astarben, asmorik ez dute falta. «Ideiaren bat daukana, jarri dadila gurekin harremanetan».

«Emakumeei esker segi du gure leinuak»

Sagardotegiko jantokian ikusi daiteke, baita ere, Anna Rocak ikatz-arkatzarekin egindako ‘Sagardoaren Belaunaldiak’ lana. Baita Iñaki Villanuevaren ‘SagarZaina’ eskultura ere.

Urteurren festa eta SagarArte galeriaren inaugurazio egunean, beste obra bat ere gehitu zuten galeriara: Anna Rocaren *Sagardoaren Belaunaldiak*. Festaren barruan antolatutako ekitaldia izan zen, Rocak zuzenean inprobisatu baitzuen irudia pinuzko egurrean, ikatz-arkatzarekin: «etxeko bi emakumeak irudikatzen saiatu zen», dio Josebak; Kizkitza, arreba, eta Agurtzane Galparsoro, ama.

Emakumeak, ekintzaile ere bai

Marrazki honetan, baleontzietan joandako baleazale edo arrantzaleen zain etxean zain geratzen ziren emakumeak irudikatzen dira, baina ez dira zain, geldi geratzen, besterik gabe. «Bale garaietako istorioa kontatu nahi izan zuen, baina emakumeen ikuspuntutik. Izan ere, Astarben 15 belaunaldik irautea ez da kasualitatea».

‘ Isabelek Murgiako jauntxoaren kontra egin zuen borroka, sagastiak mantentzeko.

Hain zuzen, urte horietan guztietan, zazpi alditan oinordekoak emakumeak izan zirela azpimarratzen du. «Emakumeei esker segi du gure leinuak». Hainbat dokumentutan aurkitu dituzte, gainera, sagastien eta baserriaren alde borroka egin zuten emakumeen aipamenak: Tomas de Tafalla de Mendiolak, esaterako, Isabel arrebari utzi zion oinordetza, eta honek Murgiako jauntxoaren kontra egin zuen borroka, sagastiak mantentzeko; eta baita lortu ere!

SagarZaina: familiaren baloreak

Beste obra bat ere bada, Astarbetarren familian oinarritzen dena: Iñaki Villanuevak egindako *SagarZaina*, sagarrondo zizelkatua.

«Familiako baloreak dauzka oinarri. Hasteko, gure sagastitik ateratako egurra da erabilitakoa. Horrekin irudikatzen du dena sustraietatik ateratzen dela. Eta lan egin du hori transformatzeko, baserrian sagarra transformatzeko

egiten den bezala. Gero, adarretan traineruak ikusi daitezke, egiten den esfortzua erakusteko, eta baita ere, baleazaleen istorioekin daukan lotura azaltzeko. Eta azkenik, adarren puntan botilak ikusi daitezke; ez bakarrik sagardoa botilaratzen delako, baizik eta botilak, mezuen edukiontziak ere badirelako».

SAGARRA-MANZANA Hamaika pausotako serie ilustratiboa*

Paul Lataburu

1. Hasiera berri bat

Aro berri bat hasi da lurrean. Ehiztari biltzaile taldeek basoak atzean uzten dituzte hirigune kaotikoetan murgiltzeko. Nekazaritza jaio da eta, honekin batera, gizakiak bereak egiten ditu Ama Lurreko elikagaiak. Guztiak? Ez, guztiak ez. Gizakien bihotzetan, sagarrondo zein sagarrak Jainkoen, Edertasunaren eta Ama Lurraren sinbolo izaten jarraituko dute.

5. Betiereko gaztetasuna

Iðunn Jainkosaren gidaritzapean, Iparraldeko Herriak askatasun osoz ibili ziren gure lurretan. Betiereko gazte, Gaztetasunaren Sagarra jateagatik, Vikingoak agertu ziren, gure mahai zein festak elkarbanatu genituen eta gatzetzen duen edariaz gozatu genuen. Ávalon (sagarren irla) irlatik igaro ondoren eta Morgana sorgina bisitatu ostean, Zeltek ere sagarraren kultura lau haizetara zabaldu zuten.

10. Sagardo sortzailea

XX. mendeko aurrerapen handiek testuinguru ezezagun bat marrazten hasi ziren sagardoaren munduan. Sagardo sortzaileak sortzen ari ziren, zientzia ezberdinen jakintza, material berriak eta igarotako belaunaldi guztien jakinduriak oreka sortu zuten edari mistiko honetan.

**Erakusketako hiru adibide; jatorrizkoak, koloretan.*

ARGAZKIAK



Atsegin dut 0

Whatsapp

Emaila

Inprimitu

IRUZKINAK